

Ikerrek eta Anek segitzen dute izen ugariak izaten azken hiru urteetan

Gurasoek euskal izen bakunetara jotzen dute

1996tik hona, Ane da neska-izena aukeratzeko orduan gurasoen kutunena. Informazioa Eustatek jakinarazi du, Euskal AEn 2004-2006 artean jaioetakoei ipinitako izenez ari delarik. Bigarren Irati dator, hirugarren Naroa, gero June, Uxue, Leire eta Nahia.

Ikerrek ere eutsi egiten dio gurasoen gustukoena izateari; ondoren, Jon eta Unai. Eta gero Ander, Mikel eta Oier datoz tropelean.

Erregistro Zibilak gehienez bi izen bakun edo konposatu bat jartzeko aukera ematen du; gurasoek bakun batera jotzen dute.

Ehun izen ugarienen artean Jon Ander konposatua bakarrik agertzen da, mutilentzakoek ari garela; Mariarekin osatutako neskentzakoak, hain ugariak zirenak, ez dira agertu ere egiten.

Izen bereko grafia ezberdinak

Euskal izenak dira nagusi, batzuetan bi grafia agertzen direlarik: Ane-Anne, Itxaso-Itsaso, Leire-Leyre, Jon-Ion, Aritz-Haritz. Bikote hauek denak, Itsaso eta Ion izan ezik, 100 ugarienen artean daude.

Maria eta Miren bikotean izan ezik, izen baten euskal forma nagusitzen da; horixe gertatzen da Ane-Ana, Xabier-Javier, Jon-Juan, Mikel-Miguel bikoteetan.

2006ko estatistikan 1.511 neska-izen ezberdin agertzen dira, eta 1.358 mutil-izen. Horietatik, behin bakarrik agertzen dira 1.015 neska-izen eta 955 mutil-izen. Izen txinatarak, afrikarrak, arabiarak, italiarrak, anglo-saxoiak e.a. agertzen direlarik. Erabilitako izen-kopurua, 1999tik, %58,6 hazi da mutilen artean eta %44,3 neskenean.

1.taula: 25 izen ohikoenak azken hiru urteotan

Emakumezkoak				Gizonezkoak		
	Izena	Maiztasuna	%	Izena	Maiztasuna	%
1	Ane	838	2,91	Iker	1.160	3,80
2	Irati	836	2,90	Jon	991	3,25
3	Naroa	672	2,33	Unai	957	3,13
4	June	668	2,32	Ander	913	2,99
5	Uxue	644	2,23	Mikel	820	2,69
6	Leire	639	2,22	Oier	794	2,60
7	Nahia	620	2,15	Aimar	781	2,56
8	Izaro	572	1,99	Eneko	781	2,56
9	Paula	569	1,97	Asier	772	2,53
10	Lucía	565	1,96	Markel	711	2,33
11	Nerea	502	1,74	Ibai	643	2,11
12	Maialen	469	1,63	Aitor	619	2,03
13	Maria/María	461	1,60	Julen	607	1,99
14	Naia	429	1,49	Xabier	568	1,86
15	Haizea	404	1,40	Unax	495	1,62
16	Eider	379	1,32	Beñat	411	1,35
17	Maider	372	1,29	Aritz	370	1,21
18	Nora	361	1,25	Gorka	365	1,20
19	Ainhoa	342	1,19	Iñigo	354	1,16
20	Sara	335	1,16	Pablo	323	1,06
21	Garazi	306	1,06	Adrian/Adrián	319	1,04
22	Iraia	282	0,98	Ekaitz	268	0,88
23	Maddi	281	0,98	Lander	267	0,87
24	Oihane	251	0,87	Alex	245	0,80
25	Laura	246	0,85	Daniel	244	0,80

Iturria: EUSTAT. Jaiotzen estatistika

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Tel:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Martín González Hernández

Tlf:+34-945-01 75 49 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es